

Lingolang webgunea, haurrak hizkuntza erakusle

TOPAGUNEAK ireki du Lingolang webgunea. Haurrak dira protagonista. Errusieraz, guaranieraz, errumanieraz, amazigeraz, urduz eta beste hainbat hizkuntzatan hitz egiten entzun daitezke. Haien jatorrizko hizkuntzak dira. Euskararen eta Euskal Herrian ditugun beste hizkuntzen arteko zubia eraiki nahi du Topaguneak. Hortaz, webgunean ageri diren haurrek hainbat hitz eta esaldi haien hizkuntzan nola diren erakutsi digute bideo bidez. Topaguneak hiru helburu nagusi lortu nahi ditu Lingolan baliatuz: ikastetxeetako hizkuntza aniztasuna islatzea; hizkuntza horiek ezagutu eta hiztunei aitortza egitea; eta ikastetxei eta gurasoei aniztasuna lantzeko baliabideak eskaintzea.

“Berria” egunkariaren estilo liburua sarean

PAPERETIK DIGITALERA jauzi egin du *Berriaren Estilo liburua* eta hamaika abantaila izango ditu. Besteak beste, etengabe berritzeko aukera izango du.

Sarea baliatuz, erabiltzaileek edonolako galderak egin ahal izango dituzte eta *Berriako* lantaldeak erantzunak eskainiko ditu. Kontuan hartuta sarean gero eta gehiago idazten dela, idazkera horren berezitasunei erreparatu die, eta informazioaren joskera, hipertestu eta loturak, interaktibitate eta multimedia elementuak landuko dituzte. Hemen aurkituko duzue *Estilo liburua*: <http://www.berria.info/estiloliburua/>



Bahea

Jabier Zabaletak Karkara.com-en esanak:

“2011ko otsailean Orioko kultur etxean egindako ‘Oriko. Euskarazko arnagunea sendotu’ jardunaldiaren ondorio nagusietako bat hau izan zen: herritarren azken urteotako lanaren bitartez, lortu dugu gure gazteek euskaraz normal samar bizitzea eta beren ohiko bizimodua batez ere euskaraz izatea, beren inguruko ekosistema euskaldunean mugitzen direnean; baina, behin hortik ateraz gero, oso erraz egiten dute gaztelaniara salto, ez dutelako barneratuta euskararen aldeko jarrera kontzientea. Orion bizi daitezke euskaraz jarrera kontziente hori gabe ere; baina, kanpora doazenean (Donostiara, Bilbora, unibertsitatara, lanera...), braust egiten dute hizkuntza-aldaketa, tresna ideologikoak falta zaizkielako euskarari eusteko”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Enpresa publikoen kudeaketa kaskarra

AZKEN ASTEETAN hainbat albiste kaleratu da, EAEko, Nafarroako eta foru aldundietako gobernuek kudeaturiko enpresa publikoen inguruan. Hala, Nafarroako Gobernua zenbait enpresa publiko desegiten ari da, azken urteetan hamarnaka milioi euroko galerak izan ondoren. Nafarroako enpresa publikoen galerak 32,2 milioi eurokoak izan ziren 2011n eta 65 milioi eurokoak 2012an. Gehien galdu duena Sodena izan da (Nafarroako Garapen Elkarte) eta haren atzetik daude NDO (Los Arcoseko zirkuitua eta Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria kudeatzen duena), CEIN eta GAN. EAEn, Barakaldoko BECek galera handiak ditu, 320 milioi euro hain justu. Bilbao-Ria-2000 elkarteak “crack” egiteko zorian da, 203 milioi euroko zorra baitu. Zubietako errauskailua justizia epaitegietan da, EAJko aurreko foru arduradunen kudeaketa dela-eta, eta abar. Horrek guztiak langileei eragiten die, EEKak eta soldata jaitsierak ezarri nahi

baitzaizkie. Enpresa horien arduradun politiko UPN –Nafarroako kasuan– eta EAJ –EAEko kasuan– dira. Egoera hori, Hego Euskal Herriko enpresa publikoen kudeaketaren adierazle ezkorra da. Batzuek esango dute finantza eta ekonomia krisiagatik izan dela. Onartu genezake arduraren zati bat krisiari dagokiola. Baina erru handiena, euren erantzukizuna onartzen ez duten alderdi politikoena da, ez zituztelako helburuak ondo kudeatu eta planifikatu, ez zituztelako arriskuak aurreikusi, eta batez ere, krisiaren kontrako neurriak ez zituztelako garaiz hartu. Orain dabilena baino askoz trafiko handiagoa aurreikusi zen Artxandako tunelen eta Supersurraren esplotazioa –Bizkaiko Diputazioaren esku– esaten ari garenaren beste adibide bat da. Eta horrela dabilta!

Juan Mari Arregi

